



INDUSTRIA IRAULTZA (6. zatia)

Gutxienez 6,5 atera behar duzu gainditzeko ariketa hau

Adam Smith	finantza-kapitalismoa	kartismoa	Nekazaritza-iraultza
Anarkismoaren	garraioen iraultza	kateko lana	petrolio
Behe-mailako klaseak	goi-burgesia	Lan-banaketa	proletarioen diktadura
berdintasun juridikoan	Goi-mailako klaseak	langile-mugimendua	proletariatza
Bigarren Industria Iraultza	hirietara	Lehen Industria Iraultza	sozietate anonimoak
Bigarren Internazionala	holdinga	lehen Langileen Nazioarteko Elkarte	taylorismoa
elektrizitatea	Industria Iraultza	liberalismoa	trade unions
Erdi-mailako klaseak	Internazional Sozialista	Ludismoa	trena
Estatu Batuak	Iraultza demografikoa	lurrenontzia	trasta
Europar	Japoniar	marxismoaren	XVIII. Mendearen
fabrikak	Kartela	nekazari	Zollverein

HUTSUNEAK BETETZEKO ERABILIKO BEHARKO DUZU GOIKO TAULAN DAUDEN KONTZEPTUAK

(1)..... honako hau da: ekoizpeneko prozesuetan masiboki makinak erabiltzen hastearen ondorioz sortu ziren aldaketa ekonomiko eta sozial garrantzitsuen multzoa. Aldaketa horiek Britainia Handian hasi ziren, (2)..... bigarren erdian, eta nekazaritza-ekonomiatik ekonomia industrialera eta landa-gizartetik hiri-gizartera igarotzea ekarri zuten.

Industria Iraultzak aldaketa handiak eragin zituen:

- (3)..... : hazkunde demografiko handia egon zen, heriotza-tasak behera egin zutelako. Zenbait arrazoiengatik egin zuen behera heriotza-tasak: epidemiek behera egin zutelako, osasungintzan hobekuntzak egon zirelako, elikadura hobetu zelako eta aurrerapenak egin zirelako higie publicoan eta pribatuan. Horregatik guztiagatik produktuen eskariak gora egin zuen eta langile gehiago zeuden.
- (4)..... : Elikagaien eskariak gora egitearen ondorioz, berrikuntzak aplikatu ziren nekazaritzan eta abeltzaintzan. Iraultza liberalen ondorioz,



lurrek jaunen jabetzakoak izateari utzi zioten, eta jabetza pribatu bihurtu ziren. Nekazariak diru-sarrera handiagoak lortu zituzten, eta kapitala sortu eta inbertsioak egin ahal izan zituzten.

Industria Iraultzan bi fase bereiz daitezke: (5)....., 1760. urtearen inguruan hasi zena, eta (6)....., 1870. urtearen inguruan hasi zena.

Lehen Industria Iraultza

XVIII. mendearen bigarren erdian, (7)..... artisau-lantegien lekua hartzen hasi ziren. Fabriketan makinekin lan egiten zen. Lehen makinek energia hidraulikoarekin funtzionatzen zuten, baina James Wattek lurrin-makina patentatu zuenetik lurrin energia-iturri nagusi bihurtu zen. Haren laguntzaz, ekoizpena nabarmen handitu zen.

Langile bakoitzak ekoizpen-prozesuko zeregin jakin batean espezializatu behar zuen eta makinak ezarritako erritmoan lan egin behar zuen. (8)..... horrek produktibitatea areagotu zuen, eta prezioak jaitsi egin ziren. Sektore nagusiak ehungintza (kotoi-industria) eta industria siderurgikoa izan ziren. Azken horretan labe garaiak erabiltzen hasi ziren. Mendebaldean doktrina ekonomiko berri bat zabaldu zen: (9)..... . (10).....-en teorien oinarritzen zen ideologia hori. Pentsalari hori lan-banaketaren eta askatasun ekonomikoaren alde zegoen.

XIX. mendean, (11)..... izan zen: (12)..... eta (13)..... asmatu ziren. Lurrin-makinak eta burdinaren industriaren garapenak egiteko garrantzitsua izan zuten. 1825ean, Ingalaterrako lehen zama-trenen linea inauguratu zen, eta 1830ean, bidaiarien garraio erregularrerako lehen tren-linea ireki zen. Trena gero eta garraiobide azkar, seguru eta merkeagoa bihurtu zen. Gainera, zeharkatzen zituen tokietako industrializazioa sustatzen lagundu zuen. Garraio berriek eragin handia izan zuten ekonomian eta gizartean, esportazioak egiteko eta migrazioetarako bide eman baitzuten.



Bigarren Industria Iraultza

1870etik aurrera, Bigarren Industria Iraultza hasi zen. Bi energia-iturri berri izan ziren Bigarren Industria Iraultzaren oinarria: (14)..... eta (15)..... . Ehungintzaren ordezt, siderurgia, industria kimikoa eta industria elektrikoa bihurtu ziren industria nagusiak. Lehengai berriak erabili ziren produktu berriak fabrikatzeko.

Enpresa txikien eta familia-enpresen ordezt, (16)..... sortu ziren, Sozietate horietan, enpresaren kapitala partaidetzatan edo akziotan zatitzen da, gero akzioak burtsan negoziatzen dira. Bankuak elementu garrantzitsu bihurtu ziren eta (17)..... sortu zen.

XIX. mendearen amaiera aldera, ekoizpena handitzeko sistema berriak aplikatu ziren: (18)..... eta (19)..... . Taylorismoan, langile bakoitza zeregin batean espezializatzen zen, eta egindako lanarekiko soldata proportzionala jasotzen zuen. Kateko lana eta serieko ekoizpena, berriz, Henry Ford enpresariak aplikatu zituen bere auto-fabriketan. Merkatuak kontrolatzeko nahia zela eta, zenbait enpresa-kontzentrazio mota sortu ziren: (20)..... (enpresen elkartea), (21)..... (enpresa-elkarketa horretan, enpresetako batek besteak kontrolatzen ditu) eta (22)..... (borondatez elkartzen diren enpresen multzoa).

Industria Iraultzaren hedapena

Britainia Handian sortutako Industria Iraultza hainbat herrialdetara hedatu zen. (23)..... , Belgika izan zen Erresuma Batuen ondoren industrializatu zen lehen herrialdea. Alemaniak industrializatzeko zailtasunak izan zituen,



ez baitzen estatu bateratu bat izan, baina (24)..... sortu zen, zenbait estatu alemanen arteko aduana-batasun bat, eta barne-merkatu handi bat eratu zen horrela. Europako gainerako herrialdeen artetik, Danimarkan eta Suedian soilik egon zen nolabaiteko industrializazioa. (25)..... industria-potentzia handi bat bihurtu ziren XIX. mendearen amaieran, zenbait faktorerengatik: horko nekazaritza azkar mekanizatu zen, natura-baliabide ugari zeuden, barne-merkatu handi bat sortu zen herrialdea kostatik kostara zeharkatzen zuen trenbide-sare baten eraikuntza azkarrari esker. Zenbait mendez isolatuta egon eta nagusitasuna izan ondoren, (26)..... , Meiji aroa hasi zen. Aro horretan, tradizioekiko errespetua eta teknologia modernoa uztartu ziren.

Industrializazioak biztanlerian izandako ondorioak

XIX. mendean, Europako biztanleriaren hazkundea bizkortu zen. Ekoizpena hirietan pilatu zenez, (27)..... asko (28)..... joan ziren. Hiriek ez zuten nekazari-exodo guztia hartzeko ahalmenik. Hori dela eta, 1800etik 1924ra bitartean, 60 milioi europarrek beste kontinente batzuetara emigratu zuten.

Gizarte industrial berria (29)..... oinarritu zen, baina emakumeek gizonen mende egoten jarraitzen zuten (aitaren edo senarraren mende). Antzinako Erregimeneko estamentuak desagertu ziren eta gizartea hiru gizarte-klasetan zatitu zen. Gizarte-klaseak ahalmen ekonomikoagatik bereizten ziren, eta ez pribilegioengatik:

- (30)..... : aristokraziak gizartean zuen nagusitasunaren zati bat galdu zuen, jaunei nekazarien gain zituzten eskubideak kendu zitzaizkienean, eta zergak ordaintzen hasi zirenean. Buruzagi-klase berri bat sortu zen: (31)..... . Gizarte industrial berriko klase boteretsua bihurtu zen goi-burgesia.



- (32)..... : erdi-mailako klase edo behe-burgesia zabal bat sortu zen. Talde heterogeneo bat zen eta balio handia ematen zion lanari, aurrezteari eta hezkuntzari.
- (33)..... : Industria Iraultzarekin, (34)..... agertu zen. Langileek osatzen zuten, kalifikazio gutxi eskatzen zuten lanak egiten zituzten langileek. Langile horiek oso soldata baxuak kobratzen zituzten lanaldi luzeak egitearen truke.

Langileak, fabriketan pilatuta lan egitean, beren lan-baldintza gogorrez konturatu ziren, eta haiek hobetzen saiatu ziren. Horrela sortu zen, bada, (35)..... : langileek egindako ekimen kolektiboen multzoa.

(36)..... makinaren aurkako mugimendu bat izan zen, langileek makinak hartzen baitzituzten beren egoeraren erruduntzat. Nedd Ludd izeneko fikziozko pertsonaia baten izenean egiten zituzten ekintzak.

1824an aitortu zen lehen aldiz elkartzeko eskubidea Britainia Handian. Une hartatik aurrera, lehen sindikatuak ((37).....) sortu ziren, eskubideak eta hobekuntzak eskatzen zituztenak. Greba zen presioa egiteko erabiltzen zuten bide nagusia. Lanean eta politikan eragiteko antolatutako lehen mugimendua (38)..... izan zen.

Karl Marx izan zen (39)..... teoriarari nagusietako bat -hortik datorkio izena-. Friedrich Engels pentsalariarekin batera, *Manifestu komunista* argitaratu zuen 1848an. Adierazi zuten gizarte industrialetan zapaltzaileen (burgesia) eta zapalduen (langileak) arteko klase-borroka bat zegoela, eta iraultza bat hastea proposatu zuten, kapitalismoa suntsitzeko. Iraultzaren lehen fasean, (40)..... bat egongo zen; ondoren, gizarte komunista bat ezarriko zen, gizarte-klaserik eta jabetza pribaturik gabea. Langileen alderdiek eta erakundeek politikan parte hartzea ere



defendatzen zuen Marxek. Horren haritik, alderdi sozialistak sortu ziren, batez ere 1875etik aurrera.

(41)..... ideologoak Joseph Proudhon eta Mikhail Bakunin izan ziren. Anarkistak estatu forma ororen aurka zeuden, eta estatuaren ordeztu pertsonen arteko borondatezko elkarteak sortu nahi zituzten. Jabetza kolektibizatzea defendatzen zuten, eta uko egiten zieten alderdi politikoei eta hauteskunderi.

1864an, langile-erakundeek (42)..... (LNE) sortu zuten. Elkarrekin handik gutxira desagertu zen, sozialisten eta anarkisten arteko desadostasunengatik.

1889an, buruzagi sozialista batzuek (43).....

((44).....) sortu zuten, langile-erakunde marxistak koordinatzeko.

Pixkanaka, langile-mugimenduak zenbait